

## Xedapen Orokorrak

### EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

#### INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

215

AGINDUA, 2009ko abenduaren 17koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko kontratazio-mahaia sortzeari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio-ko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretua indarrean jarri ondoren, beharrezko da Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailen kontratazio-mahai berria sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 4. artikulua xedatzen duena betetzeko.

Ondorioz, Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzardeak egindako txostena jasota, honako hau:

XEDATU DUGU:

**Artikulu bakarra.**– Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza saileko kontratazio-mahaia.

1.– Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Kontratazio Mahaia sortzen da, Zerbitzu Zuzendaritzari atxikita, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio-arauei buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 7. eta 5. artikuluetan zehaztutako egitekoak burutu ditzan eta aurreikusitako jardute-eremuan.

2.– Kontratazio Mahaia kide hauek osatuko dute.

a) Lehendakaritza: Zerbitzu Zuzendaritzari atxikita ekonomia eta aurrekontua kudeaketarako teknikaria. Lehendakari kargua hutsik badago, lehendakaria ez badago edo gaixo badago, edo legean jasotako beste zerbait gertatzen bada, Zerbitzu Zuzendaritzako Langileen, Antolakuntza eta Gai Orokorrerako arduraduna ordezkaturiko du.

b) Mahaikide bat kontratazio organoak izendatuta organo horren ordezkartzan.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

#### DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

215

ORDEN de 17 de diciembre de 2009, de los Consejeros de Economía y Hacienda y de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, de creación de la Mesa de contratación del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca.

Tras la entrada en vigor del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, es necesario dotar al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, de una nueva mesa de contratación, al objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el artículo 4 del Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En su virtud, previo informe de la Junta Asesora de la Contratación Administrativa,

DISPONEMOS:

**Artículo único.**– Mesa de Contratación del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca.

1.– Adscrita a la Dirección de Servicios se crea la Mesa de Contratación del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca para el ejercicio de las funciones y con el ámbito de actuación previstos en los artículos 7 y 5 del Decreto 136/1996, de 5 de junio.

2.– La referida Mesa estará compuesta por los siguientes miembros:

a) Presidencia: el o la Técnico en Gestión Económica y Presupuestaria adscrito a la Dirección de Servicios. En los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal será suplido por el o la Responsable de Personal, Organización y Asuntos Generales de la Dirección de Servicios.

b) Vocal en representación del órgano de contratación designado por éste.

c) Honako hiru mahaikide hauek: Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari bat; Ekonomia eta Ogasun saileko kontratazio zerbitzuaren ordezkari bat; eta Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzaren ordezkari bat. Azken hori, dagozkien titularrek izendatuta eta bakarrik ondasun eta zerbitzu informatikoei lotuta dauden espedienteetan izango da.

d) Idazkaria-Mahaikidea-Aholkulari juridikoa: Zerbitzu Zuzendaritzara atxikitako kontratazio arduraduna izango da, eta beteko ditu Mahaiko lege-aholkulari eta idazkari lanak, hitzarekin eta botoarekin. Idazkari kargua hutsik badago, idazkaria ez badago edo gaixo badago, edo legean jasotako beste zerbaite gertatzen bada, Zerbitzu Zuzendaritzako aholkularitza juridikorekin letradu bat ordezkatuko du.

3.- Ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 6.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, Agindu honetan berriaz egiten ez diren izendapenak eta aurreikusten ez diren ordezkapenak Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak erabakiko ditu. Izendatutako pertsonen artean ahalik eta alternantzia gutxien egon dadin saiatuko da, eta izendapenek espedienteetan agertu beharko dute.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira xedapen hauek: 2002ko urtarrilaren 22ko Agindua, Ogasun eta Herri Administrazio eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuena, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko kontratazio-mahaia sortzeko dena; eta 1999ko ekainaren 11ko Agindua, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena eta Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, Nekazaritza eta Arrantza Saileko kontratazio mahaia osatzeari buruzkoa.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abenduaren 17a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,  
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,  
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,  
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

c) Tres vocales en representación, uno, de la Oficina de Control Económico, otro, del Servicio de Contratación del Departamento de Economía y Hacienda y, otro, de la Dirección de Informática y Telecomunicaciones, éste último únicamente en los expedientes referidos a bienes y servicios informáticos, designados por sus respectivos titulares.

d) Secretario-Vocal-Asesor Jurídico: la Responsable de Contratación de la Dirección de Servicios, que ejercerá las funciones de Asesora Jurídica y Secretaria de la Mesa con voz y voto. En los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal será suplida por un letrado de la Asesoría Jurídica de la Dirección de Servicios.

3.- Conforme a lo dispuesto en el segundo párrafo del artículo 6.2 del Decreto 136/1996, de 5 de junio, las designaciones no efectuadas con carácter singular y las suplencias no previstas en la presente Orden, serán acordadas por la Consejera de Medio Ambiente y Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Dichas designaciones se efectuarán procurando la menor alternancia posible en las personas designadas y de ellas se dejará constancia en el expediente.

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas la Orden de 22 de enero de 2002, de los Consejeros de Hacienda y Administración Pública y de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, de creación de la mesa de contratación del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, así como la Orden de 11 de junio de 1999, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública y del Consejero de Agricultura y Pesca, de creación de la mesa de contratación del Departamento de Agricultura y Pesca.

#### DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de diciembre de 2009.

El Consejero de Economía y Hacienda,  
CARLOS AGUIRRE ARANA.

La Consejera de Medio Ambiente,  
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,  
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.